

Joseba Azkarraga ◊ Soziologoa eta irakaslea

Sistema bera krisian dagoela eta hala ere, gizartearen heldulekua oraindik hazkunde ekonomikoan oinarritzen dela adierazi du; horri buelta emateko aldaketa bat egon behar dela esan du.

«Gutxiagorekin bizitzea exigentzia fisiko bat izango da etorkizunean»

Aizpea Amas

Naturaldiaren barruan, Zarautzen nahiz Erretereria-Oreretan hitzaldia emango du Joseba Azkarraga Soziologian doktoreak eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea (Abadiño, 1972), beste bi aditurekin batera: Jose Maria Hernandez eta Leo Argote. Bizi kalitatea mantenduz gutxiagorekin bizitzea posible den aztertuko dute.

Zeriburuz hitz egingo duzu?

Azaltzen saiatuko naiz zeintzuk diren gure ongizaterako iturri funtsezkoak. Hiru iturri daude. Batetik dago ekoizpen ekonomiko, elkartruke ekonomiko bidez lortzen duguna, eta BPGk neurritzen duena. Bigarren iturriak dira elkartrukeak, baina diru oinarriak ez dutenak. Hirugarren bat ere badago, ekosistemak, eta horiek lortzen ditugun *produktu* eta *zerbitzuak*: ura, oxigenoa, petrolioa... Gure gizarteetan gertatu dena da gehiegi hedatu dela ekoizpen ekonomiko, eta beste bi iturriak kaltetu dituela. Gizarteak heltzen dira puntu batera, zeinetatik aurrera materialki gauzak hobetzeak ez duen esan nahi ongizate hobetzen denik.

Krisi garai honetan bizi kalitatea okertu dela uter daiteke?

Nabarmena da sektore zabal baten tentzari honek pobretze masibo bat ekarri duela, eta estualdi eta beldur egoera bat. Orduan, bai ikuspegi materialetik zein psikikotik, halako agresio masibo bat ekarri du. Deshazkunde prozesu bat gertatzen ari da sektore zabal batean, baina oso modu desordenatuan: jende asko oso gaizki pasatzen ari den bitartean, luxuaren sektorea %20 hazi da. Hazkunde mugagabearen ideian erabat oinarritzen den gizarte bat deshazkunde prozesuan sartzean sufrimendua pizten da. Agian arazoa ez da deshazkunde, hazkunde mugagabearen oinarritutako gizarte bera baizik.

Garai aproposa al da, aipatu dituzun beste bi puntuak lantzeko, bizi kalitatearen mesedetan?

Bai. Garaia da hazkunde ekonomiko mugagabearen ideia bera zalantzan jartzeko. Krisi garai honetan gure esperantzak daude ba-



HITZA

tez ere hazkunde ekonomikoan jarrita, baina hazkunde ekonomiko mugagabeak ekarri gaitu gauden lekura. Horrez gain, ezberdintasun sozioekonomikoak inoizko handienak izatera ekarri gaitu. Eta baita antisolitarikoen kontsumoa urtero bikoiztera ere; eta ez, orain, krisi garaian, baizik eta hazkunde ekonomiko garaian. Eta hala ere, jarraitzen du guretzat izaten halako helduleku ia magiko bat.

Nork eman behar ditu urratsak hori garatzeko: herritarrek, erakundeak?

Beharko genuena, ziurrenik, paradigma aldaketa bat da. Hau ez da erreforma txikiz egin daitekeen zerbait. Krisi sistemiko baten aurrean gaude, eta kolisio baterantz doa gizadia zuzen-zuzen. Ikuspegi ekonomikotik oso garbia egiten zaigu, baina badaude beste kolisio inportanteago batzuk zerikusia daukatenak ekologiarekin, energiarekin eta klimarekin. Hori guztiari aurre egiteko era guztiak interbentzioak beharko ditugu eskala guztietan: lokaletik nazioartera. Gainera, eragile guztiak sentitu beharko lirake interpelatuta. Guztien ekintza koordinatuak egin ahal izango dio aurre kontu horri.

Herritarrek kontzientziatuta ikusten al dituzu?

Hedatzen ari da gizartearen horren inguruko kontzientzia. Etorkizunean era guztietako eskasia bizikidugarri, eta horrek gauzak izugarri aldatuko ditu. Hori ez dago auzitan, exigentzia fisikoa izango da

gutxiagorekin bizi beharko dugula etorkizunean. Nik uste dut hortaz jabetzen joan behar garela politikoki. Kontua da gutxiagorekin hobeto bizitzea. Hori da idatzitako beharrek gidatzen berria. Hortaz jabetzea dagokigu. Zentzu horretan egin beharrek lan edukatibo eta kulturala izugarria da.

Eta erakundeak?

Erakundeetatik hamarkadetan iraunkortasunaren aldetik gauzak egin, egin dira, baina ez dira nahikoak; egindako guzuez ez dute ahalmenik egoera iraultzeko. Orduan ikuspegi horretatik oraindik ez dira benetan jabetu etorkizunari aurre egiteak eskatzen duen paradigma aldaketa zenbaterainokoa den.

Nola imajinatzen duzu etorkizuna?

Etorkizunean ziur gauzak aldatuko direla. Gutxiagorekin bizitzea exigentzia fisiko bat izango da. Gainera, datozen aldaketak neurri handi batean iraultzaileak izango dira. Gizarte industrialia oinarritu da egitura erraldoi eta zentralizatueta. Etorkizunak eskatuko duena da eskala txikiagoko egiturak sortzea eta deszentralizazioa.

◊ aamas@hitza.info

Hitzaldia

■ **Bihar.** Zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto? *Etorkizuneko gizarteaz eta biziaz*, 19:00etan, Reina aretoan.

Belaunaldien arteko jaia egingo dute hilaren 19an

Erretiratuena elkarrekin kideentzat eta haien senideentzat antolatatu dute festa San Markon

Ikeme Zarate

Erretereriako erretiratuena elkarrekin belaunaldien arteko jaia antolatatu dute hilaren 19rako (larunbata), Gizarte Zerbitzuen Sailarekin batera. Goizetik hasi eta egun osoz hainbat ekimen prestatu dituzte antolatzaileek jai egun horretarako.

Eguraldi ona eginez gero, San Markoko zelaian bertan egingo dute jaialdia, antolatzaileek zehaztu dutenez: «Txarra egiten badu, berriz, gotorlekuko goiko solairuan egingo ditugu prestatu ditugun ekimenak», gaineratu dute.

Bestalde, belaunaldien arteko jaia Erretereria-Oreretako erretiratu elkarte guztietako bazkide eta haien senideen arteko «topagunea» izan nahi duela zehaztu dute antolatzaileek, «batez ere biloben kasuan». Horrenbestez, erretiratuak zein senideak egun osoa iruango duen festan parte hartzea deitu dituzte.

◊ izarate@hitza.info

Egitaraua

- **11:00etan.** Harrera.
- **11:30ean.** Helduentzako jokoen zirkuituaren hasiera.
- **12:00etan.** Gazteentzako jokoak.
- **16:00ean.** Tute txapelketa.
- **17:00etan.** Dantzaldia.
- **18:00etan.** Sari banaketa irabazleei.
- **19:00etan.** Jaiaren amaiera.

Irudia ◊



BERTSOPAPERIK ONENAK

Iurretako IX. Bertsopaper Lehiaketan bi erreteriar izan dira protagonista: Iñigo Legorburu eta Julian Albistur. Legorburuk irabazi du bertsopaper lehiaketa *Mila pertsonaia pertsona bakarrean* lanarekin. Albisturrek, berriz, epaimahaiaren alpainen berezia jaso du lehiaketa horretan, *7.000.000.000 biztanle* bertsopaperarengatik. 200 eta 100 euroko saria eraman dute, hurrenez hurren. HITZA

→ Laburrak

Sagardo Eguneko zenbaki saritua 2418 izan da

ZOKZETA Sagardo Eguneko zozketan honako zenbaki hau izan da irabazlea: 2418. Irabazleak hamabost egun ditu saria jasotzeko HITZA-ren bulegoan.

Correosek disko berria aurkeztuko du Reynan

MUSIKA Correos rock taldeak disko berriako prestatu dituen kantak aurkeztuko ditu, bihar, 22:30etik aurrera, De Cyne Reynan (Zumardian dago). Hurrengo lanaren izena *Esponjas para borrar el horizonte* da, eta herri-tar guztiak animatu dituzte musika entzutearekin batera, ongi pasatzera.